



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

19/01/21

Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe onartu Barakaldoko Gorostiza eskolea ondare elementu moduan babesteko neurri berezirik hartzea

Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskera eta Kultura Batzordeak ez dau onartu gaur goizean, Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Talde Popularra taldeen kontrako botoakaz, EH Bilduk aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen bat, barriztatze lanak jasoko dituan Barakaldoko Juan Ignacio Gorostiza eskolako eraikin historikoa babesteko. Ekimenak Podemos Bizkaia taldearen eta Talde Mistoko ordezkariaren aldeko botoak jaso ditu, 6 guztira, ganerako talde politikoen kontrako 10 botoen aurrean.

Meritxell Elgezabal EH Bilduko batzordekideak defendidu dauen proposamenaren jatorria, Barakaldoko Udaleko Osokoak ondare elementu moduan eraikinaren babesu modu parzialean kentzean oinarritu da. Erabagi hori joan dan urriaren 25ean hartu zan, ikastetxea handitzeko helburuz. Elgezabalek, 1921ean eregi zan eraikinaren balio historikoa, arkitektonikoa eta ondarekoa defendidu beharra aitatu dau behin eta barriro, Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako teknikariek hori erakusten dabelako. Arauz Besteko Proposamenak, obrak geratzeko bere eskuetan dituan jarduketa guztiak martxan jarteko eskatzen eutsan Foru Aldundiari, eta, horrez gain Eusko Jaurlaritzari, eraikin historikoa kultur ondare babestu izendatzeko espedientea hasteko.

Arturo Aldecoa Talde Mistoaren ordezkaria proposamenaren alde agertu da, higiezinaren berezitasuna eta aurreikusitako lanek haren estrukturan izango daben eragin handia aitatu. Podemoseko Jose Angel Elgezabal be EH Bilduren ekimenaren alde agertu da, barriztatze lanen kontrako txosten teknikoak dagozala eta ondare arloan eskumenak dituen erakunde guztien artean akordioak lortu behar dirala esanez.

Talde Popularreko Eduardo Andrés kontra agertu da, aitatuako txosten horreek ez dirala lotesleak eta Bizkaiko Foru Aldundiak kasu honetan ez daukala ezelango eskumenik esanez. Marimar Rodríguez Euskal Sozialistak taldeko bozeroaleari jagokonez, gauza bera esan dau, eraikina ez dagola Eusko Jaurlaritzako kultur ondasunen erregistroan ezta ondare elementuen inbentario orokorrean esanez, eta, beraz, bere eskumen osoa Udalarena dala, eta bertako erakundeak bere sailkapenaren aldaketa parziala erabagi dauela, hezkuntzarako behar batean oinarrituta. Euzko Abertzaleak taldearen aldetik, Alfredo Oleak antzeko zer edo zer esan dau, eta tokiko autonomia printzipioaren defentsea eta Udalen eskumenei zor jaken errespetua jarri ditu balioan.

15 museotako arduradunen agerraldi eskaria

Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskera eta Kultura Batzordearen saioa, Arturo Aldecoa Talde Mistoaren ordezkariak egin dauen proposamen bategaz osatu da. Proposamen horretan,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Bizkaiko 15 museotako beste horrenbeste zuzendari edo arduradun Batzordearen aurrera etortea eskatzen zan, “eurek zuzentzen dituen museoen arazoak eta beharrak azaltzeko, Aldundiagaz daukien lankidetzea hobetzeko”. Foru Aldundiak zelanbaiteko parte hartzea daukan museo txikiak eta ertainak dira. Horreen artean dagoz Simon Bolivar Museoa, Balmasedakoa, Balendin Berriotxoari eskainitakoa, Torre Loizagakoa, Rialia, Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa, Gernikako Bakearen Museoa, Durangoko Arte eta Historia Museoa, Medikuntzaren eta Zientzien Historiaren Euskal Museoa, Bilboko Zezen Museoa, Goaz Museuma, Orozkoko Museoa, Euskal Herriko Meatzaritzarena, Bilboko Aste Santuko Pausoena eta Arte Sakratuko Elizbarrutiko Museoa. Proposamenak ez dau aurrera egin, aldeko 5 boto, abstentzino bi eta kontrako 9 boto izan ditualako.

Talde Popularreko Eduardo Andrés alde agertu da. EH Bilduko Meritxell Elgezabalen eretziz be egokia da museoetako arduradunak Batzordearen aurrera etortea, baina bere zalantzak erakutsi ditu, presentzia eskatzeko aukeratu dan eguna dala eta. Podemos Bizkaia taldeko José Ángel Elgezabalek bere taldea abstenidu egingo dala iragarri dau, bere eretziz eskari horrek ez daukalako lehentasunik legealdiaren une honetan, “ez dogu begi txarrez ikusten” adierazo arren. Proposamenak, barriz, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernua eusten daben talde bien kontrako jarrera jaso dau. Euskal Sozialistak taldeko Marimar Rodríguezek esan dauenez, proposamena “garrantzitsua da, baina ez lehentasunezkoa”, eta kudeaketeari jagokonez museoak oso heterogeneoak dirala gogoratuazo dau. Euzko Abertzaleak taldeko Celia Gómezek azaldu dauenez, museoen arduradunen agerraldiak “helburu orokorregia dauka, ez deutso zergaiti edo behar jakin bati erantzuten, eta eskatzen dan informazioak badauka daborduko bere kanala, hori eskuratu gura dauenarentzat”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
21/01/19

Las Juntas Generales de Bizkaia rechazan adoptar medidas especiales para la protección de la escuela Gorostiza de Barakaldo como elemento patrimonial

La Comisión de Euskera y Cultura de las Juntas Generales de Bizkaia ha rechazado esta mañana, con los votos en contra de los grupos junteros Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Grupo Popular Vizcaíno, una Proposición No de Norma presentada por EH Bildu en torno a la protección del histórico edificio de la escuela Juan Ignacio Gorostiza de Barakaldo, que se va a ver sometido a obras de reforma. La iniciativa ha contado con el apoyo de Podemos Bizkaia y del representante del Grupo Mixto, y ha sumado 6 votos, frente a los 10 en contra del resto de formaciones políticas.

La propuesta, defendida por la juntera de EH Bildu Meritxell Elgezabal, tenía su origen en la retirada parcial de la protección del edificio como elemento patrimonial por parte del Pleno del Ayuntamiento baracaldés, decisión adoptada el pasado 25 de octubre al objeto de ampliar las dependencias del colegio. Elgezabal ha insistido en la necesidad de defender el valor histórico, arquitectónico y patrimonial de un edificio construido en 1921, que ha sido puesto de relieve por informes de técnicos forales y del Gobierno Vasco. La Proposición No de Norma pedía a las Juntas Generales de Bizkaia instar a la Diputación Foral a poner en marcha todas las actuaciones en su mano para paralizar las obras, así como instar al Gobierno Vasco a iniciar el expediente para calificar como patrimonio cultural el histórico edificio.

Arturo Aldecoa, en representación del Grupo Mixto, ha apoyado la propuesta, argumentando la singularidad del inmueble y el fuerte impacto en su estructura de la obra prevista. En representación de Podemos, José Ángel Elgezabal también ha defendido la iniciativa de EH Bildu, subrayando la existencia de informes técnicos contrarios a la reforma y la conveniencia de llegar a acuerdos entre todas las instancias con competencias en materia de patrimonio.

Por el Grupo Popular, Eduardo Andrés se ha mostrado contrario, señalando que los citados informes no son vinculantes, y que la Diputación Foral de Bizkaia no tiene en este caso ninguna competencia sobre la materia. La portavoz de Socialistas Vascos, Marimar Rodríguez, ha incidido en la misma línea, aseverando que el edificio no figura en el registro de bienes culturales ni en el inventario general de elementos patrimoniales del Gobierno Vasco, y que es por tanto de exclusiva competencia municipal, cuyo órgano de gobierno ha aprobado la modificación parcial de su calificación a partir de una necesidad educativa. Por parte del grupo Nacionalistas Vascos, Alfredo Olea ha reiterado estos argumentos, al tiempo que ha puesto en valor la defensa del principio de autonomía local y el respeto debido a las competencias municipales.

Solicitud de comparecencia de los responsables de 15 museos

La sesión de la Comisión de Euskera y Cultura de las Juntas Generales de Bizkaia se ha completado con un debate en torno a la propuesta del representante del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, para que un total de 15 directores o responsables de otros tantos museos vizcaínos



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

compareciesen ante la misma Comisión “para explicar la problemática y necesidades de las entidades que dirigen y las propuestas y peticiones que considera útiles plantear respecto a la colaboración foral”. Se trata de instituciones museísticas de tamaño pequeño y mediano en las que la Diputación Foral participa de alguna manera, incluyendo el Museo Simón Bolívar, el de Balmaseda, el dedicado a Valentín de Berriotxoa, el de la Torre Loizaga, Rialia, Marítimo Ría de Bilbao, Museo de la Paz de Gernika, el de Arte e Historia de Durango, el de Historia de la Medicina y las Ciencias, el Taurino de Bilbao, Goaz Museum, y los de Orozko, de la Minería, de Pasos de Semana Santa de Bilbao y de Arte Sacro. La propuesta no ha salido adelante al registrar 5 votos a favor, 2 abstenciones y 9 votos en contra.

Eduardo Andrés, por el Grupo Popular, se ha mostrado a favor. Por parte de Eh Bildu, Meritxell Elgezabal también ha considerado adecuado que los responsables museísticos comparezcan ante la Comisión, aunque ha mostrado sus dudas en torno a la fecha elegida para solicitar su presencia. José Ángel Elgezabal, en representación de Podemos Bizkaia, ha anunciado la abstención de su grupo por no considerar la petición una prioridad en el actual momento de la legislatura, aunque ha afirmado que “no la vemos con malos ojos”. La propuesta ha contado en cambio con el rechazo de los dos grupos que sustentan el Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia. Marimar Rodríguez, en nombre de Socialistas Vascos, ha calificado la propuesta de “importante, pero no prioritaria”, y ha recordado la heterogeneidad de los diferentes museos desde el punto de vista de su gestión. Celia Gómez, en nombre de Nacionalistas Vascos, ha explicado que la comparecencia de los responsables de museos “tiene un objetivo excesivamente genérico, no obedece a una motivación o necesidad concreta, y la información que se solicita ya dispone de su propio canal para quien desee acceder a ella”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA